Osakidetza

BILBO-BASURTUKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

KERIK GABEKO EUSKADI

**Prozedura tabakoaren giroko kearen eta nikotina askatzeko gailu elektronikoen (NADG) aerosolen eraginpean egotea prebenitzeko eta erregistratzeko eta arau-hausteak kudeatzeko**

Bilbo-Basurtuko ESIa kerik gabeko Osasun Erakundeen Euskal Sareko kidea da, eta, horregatik, sare hori osatzen duten zentroetara joaten diren pertsona guztiei kerik gabeko ingurunea eskaintzeko konpromisoa du, ***Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea*** betetzen dela ziurtatuz.

Dokumentu honen helburua da Bilbo-Basurtuko ESIko instalazioetan tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen (NADG) aerosolen kearen eraginpean egotea prebenitzea eta erregistratzea.

**Ez dago erretzea baimenduta dagoen salbuespenezko egoerarik.**

**Procedimiento para prevenir y registrar la exposición al humo ambiental de tabaco y a los aerosoles de dispositivos electrónicos de liberación de nicotina (DSLN) y gestión de infracciones**

La OSI Bilbao Basurto es miembro de la Red Vasca de Organizaciones Sanitarias libres de humo. Por ello está comprometida en ofrecer un entorno sin humos a todas las personas que acuden a los centros que componen la misma asegurando el cumplimiento de ***la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.***

El presente documento tiene como objetivo prevenir y registrar la exposición al humo ambiental del tabaco y a los aerosoles (DSLN) en las instalaciones de la OSI Bilbao Basurto.

**No existen circunstancias excepcionales donde esté permitido fumar**.

## PROZEDURAREN GARAPENA

ESIko zentro guztiak kerik gabeko guneak direnez gero, sarrera guztietan prebentzio-neurri gisa, barrutian erretzea eta lurruntzea debekatuta dagoela azaltzeko kartelak jarri dira. Prozedura hori langile eta erabiltzaile guztiei jakinarazi zaie, intranetaren eta estranetaren bidez, hurrenez hurren.

Prozedura hori bete ahal izateko, formulario bat sortu da tabakoaren edo antzeko produktuen kontsumoarekin lotutako gorabeherak erregistratzeko, eta, bertan, esparru horretan gertatutako gorabehera guztiak jasotzen dira. Profesionalek zein erabiltzaileek erregistra ditzakete.

Gorabeheren berri emateko formularioa

Indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzeko, Zaintza eta Segurtasun Zerbitzuko langileak eta ESIko kerik gabeko batzordeko kideak arduratuko dira arau-hauslearengana jotzeaz, lehenik eta behin jokabide arau-hauslea uzteko eskatuz. Halaber, informazio-txartel bat emango zaio. Txartel horretan, tabako-kontsumoarekin lotutako arriskuak eta tabakoa erretzeari uzten laguntzeko Erakundeak dituen zerbitzuak adieraziko dira.

## DESARROLLO DEL PROCEDIMIENTO

Como medida preventiva en la entrada de todos los centros de la OSI se ha colocado señalización explicativa de la prohibición de fumar y vapear en el recinto, siendo este un espacio sin humo.
Este procedimiento es comunicado y compartido a todas las personas trabajadoras y usuarias a través de la intranet y extranet respectivamente.

Para poder llevar a cabo el cumplimiento de este procedimiento se ha creado un formulario para el registro de los incidentes relacionados con el consumo de tabaco o productos asimilables en el cual se hacen constar todas las incidencias acaecidas en este ámbito, que pueden registrar tanto profesionales, como personas usuarias.

Formulario notificación incidentes

Para garantizar el cumplimiento de la legislación vigente, el personal del servicio de Vigilancia y Seguridad, junto con integrantes de la Comisión sin humo de la OSI serán las personas encargadas de dirigirse a la persona infractora instándole en primer lugar a abandonar la conducta infractora. Asimismo, se le hará entrega de una tarjeta informativa en la que se señalan los riesgos asociados al consumo de tabaco y los servicios de la organización para el acompañamiento en el abandono del mismo.

Osakidetza

KERIK GABEKO EUSKADI

**Erabiltzailea:**

-Osasun-zentroko langileek erretzea debekatuta dagoela jakinaraziko diote erabiltzaileari, eta zigarroa itzaltzera gonbidatuko dute. Era berean, Osakidetzan tabakoa erretzeari uzten laguntzeko dagoen eskaintzaren berri emango zaio, baita ospitaleratuta dagoen bitartean nikotina ordezkatzeko terapia jasotzeko aukeraren berri ere.

-Hirugarrenentzako arriskua dagoela uste bada, Erakundeko Zuzendaritzari jakinaraziko zaio; Zuzendaritzak dagokion salaketa izapidetuko du Osasun Saileko Adikzioen Zerbitzuan (zehapenak aplikatzeko eskumena duen erakundea).

https://www.euskadi.eus/informazioa/non-bilatu-laguntza/web01-a2adik/eu/

**Usuaria/o:**

-El personal del centro sanitario, comunicará a la usuaria/o la prohibición de fumar dentro del recinto, y le invitará a apagar el cigarrillo. Asimismo, se le informará de la oferta de cesación tabáquica que hay en Osakidetza, como de la posibilidad de disponer durante el ingreso de terapia sustitutiva de nicotina.

-En caso de valorar que existe un riesgo a terceros, se informará a la Dirección de la organización, quien tramitará la correspondiente denuncia al servicio de Adicciones del Departamento de Salud (organismo competente en el ámbito de aplicación de las sanciones).

http://www.euskadi.eus/informacion/donde-buscar-ayuda/web01-a2adik/es/